



DEIALDI PUBLIKOA ZIZUR NAGUSIKO IKASTETXEETAKO GURASO-ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, BANAKAKO EBALUAZIO-ARAUBIDEAN, JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGIN DITZATEN

1. Administrazio deitzailea: ZIZUR NAGUSIKO UDALA.
2. Organo emailea: Alkatetza.
3. Alor kudeatzailea: Hiritarrendako Zerbitzuen Batzordea.
4. Instrukzio-organoa: Hezkuntza eta Gazteria Batzordeko idazkaritza.
5. Prozedura: Banakako ebaluazioa.

1.-Deialdiaren xedea

Diru-laguntzak emateko prozedura arautzea Zizur Nagusiko ikastetxe publikoetako Guraso-elkartek jarduera hezigarriak eta kulturalak antola ditzaten. Jarduera horiek 2016-2017 ikasturtean garatuko dira eta deialdi honen 3. atalean ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte. Horrez gain, Guraso-elkarteen bidez eskola-dinamika sustatzea, baita elkarte horiek ikastetxeetako hezkuntza-jardueretan parte hartzea ere bultzatuko da, hala nola gurasoentzako formakuntza-saioretan, familiek eta ikasleek elkarrekin parte hartzeko jarduera hezigarrietan, parte-hartzea bultzatzen dutenetan, etab.

2.- Helburua

Guraso-elkartek antolatutako jarduera osagarriak eta eskola orduz kanpokoak sustatzea, babestea eta sostengatzea, horren bidez hezkuntza garapenean lagundu eta gurasoen eta ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatzeko. Bestalde, Zizur Nagusiko Udalaren eta Guraso-elkarteen arteko elkarlana arautzea.

3.-Diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Biztanleria osoak hartu ahalko du parte.
- b) Deialdi honetan jasotako xede eta helburuetara egokiturik egonen dira.
- c) Entitate eskatzailearen berezko jarduerak izan beharko dira.
- d) Helburuak argi zehaztu beharko dira proiektuaren edo jardueraren aurkezpenean.
- e) Diruz lagundutako jarduera 2016-2017 ikasturtean garatu da.

Honako hauek geratuko dira deialditik kanpo:

- a) Ikasleei edo familiei zuzendurik ez dauden jarduerak.
- b) Alderdi sexistak, arrazistak, indarkeriazkoak, etab. dituzten jarduerak.
- c) Berezko diru-sarrera nahikoak dituzten eta defezitik ez duten jarduerak.
- d) Ikasleentzako jardueren kasuan, udalaren kirol-programarekin (futbola, saskibaloia...) edo kultura-programarekin (dantzak...) bateragarriak ez diren jarduerak.
- e) Gurasoentzako formakuntza-jardueren kasuan, udalaren kirol-programarekin (aerobic, mantentze-soinketa...) edo kultura-programarekin (dantzak, margoketa, yoga...) bateragarriak ez diren jarduerak.
- f) Sorospen-jarduerak.

- g) Inbentarioan sartzen den materiala lortzea.
- h) Eskola-garraioa.
- i) Jai-giroko jarduerak, hala nola txokolatadak, askariak, txistorradak, bazkariak, afariak, puzgarriak, etab.
- j) Zizur Nagusiko Udalaren edo haren erakunde autonomo baten deialdien bitartez diruz lagundutako jarduerak, defizita aurkezten duten horiek salbu. Jarduera horiek defizitaren mugaraino lagundu daitezke diruz.

4.-Aurrekontu-kredituak, diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa eta banakako zenbatekoa:

4.1.- Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan:

Deialdi honen gehieneko zenbatekoa 2.500 eurokoa da, eta 2017ko Aurrekontuen 1 32690 48200 aurrekontu-partidaren kargura egingo da.

Emandako diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak zehaztuko du aurrekontu osoaren zer kopuru dagokion aurkeztutako proiektuari.

4.2.-Banakako gehieneko zenbatekoa

Diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa diruz lagundu daitezkeen gastuekiko (diru-sarrerak kanpo utzita) era proportzionalean banatuko da. Deialdi honen oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituen eta eskaera ezarritako epean aurkeztu duen Guraso-elkarte bakoitzak argi justifikatu beharko du gastu horiek egiazki egin dituela. Jardueraren amaierako gastua irizpide horien arabera legokion diru-laguntza baino txikiagoa bada, diru-laguntza muga horretaraino murriztuko litzateke, baina horrek ez du beste erakunde bati dagokion diru-laguntzarik handituko.

5.-Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izaera izango dute ikastetxe publikoetako Guraso-elkarateek, baldin eta beren egoitza nahiz zergetarako helbidea Zizur Nagusian badute, Legearekin bat eraturik badaude eta Elkarteen Erregistroan izena emanda badute eskaera aurkezteko mugaegunean, eta baldin eta baldintza orokorrak betetzen badituzte eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezartzen diren debeku-arrazoietak baten barnean ez badaude.

6.-Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:

Honako hauek dira entitate onuradunen betebeharrak:

- a) Diru-laguntza ematerakoan zehaztu den helburu horretan erabiltzea diru-kopurua.
- b) Tributu-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoen berri izatea eta eguneraturik izatea. Zizur Nagusiko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dauzkala ofizios egiaztatuko da.
- c) Organo-emileari baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita diruz lagundutako jarduera gauzatzea eta diru-laguntza ematerakoan zehaztu zen xedea betetzea ere, eta, horretarako, memoria, balantze-ekonomikoa (diru-sarrerak eta gastuak) eta egindako gastuak arrazoitze ordainagirien kopia konpultsatuak (indarrean dagoen araudiarekin bat datozenak) aurkeztea.
- d) Organo emileak egin ditzakeen egiaztapen-probak betetzeko prest egotea, baita kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantzei buruzko beste edozein egiaztapen edo kontrol ere, eta horretarako, aurreko jardueri buruz eskatzen ahal zaion behar adina informazio ematea.

- e) Jasotako funtsak nola erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, baita agiri elektronikoak ere, egiaztapen eta kontrol jardueretan eska baitaitezke.
- f) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu diren egoera, baldintza eta betekizunetan sortu diren aldaketa guztiak Zizur Nagusiko Udalari komunikatzea eta horietarako autorizazioa eskatzea, baita diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zenbatekoa adieraztea ere. Jakinarazpen hori datuak ezagutu bezain pronto egin beharko da eta, edonola ere, diru-laguntzaren justifikazioa egin aurretik.
- g) Diru-laguntza honen xede den jardueran parte-hartzen duen pertsona orok, izan kontratupeko langile edo izan boluntario, Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren -Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren legea hein batean aldatzen dituen 13.5. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, baita Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legearen 8.4. artikuluan ezarritakoak ere. Hau da, Sexu-delitugileen Erregistro Zentraleko egiaztagiri negatibo bat eduki beharko du eta, atzerritarra izanez gero, haren herrialdeko aurrekari penalen egiaztagiri negatibo bat ere, nazioarteko hitzarmenen arabera itzulita eta legeztatuta.

7.-Eskabideak non eta noiz aurkeztu:

7.1.- Eskabideak aurkezteko tokia:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean (Erreniega parkea, z/g), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

7.2.- Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea **30 egun naturalekoa** izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Epea luzaezina izanen da. Adierazitako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak baliogabetu egingen dira.

7.3.- Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak Zizur Nagusiko Udalaren instantzia ereduaren bidez aurkeztu beharko dira, interesdunek sinaturik edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik, eredu gisa eskainitako I. Eranskinaren arabera. Eskabidearekin batera, deialdi honen 7.4. atalean aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztu beharko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emango delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Zizur Nagusiko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizuneko aitortpen bat aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea

7.4. Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak

1.- Elkarrekin honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

- a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
- b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan aipatzen direnen artean.
- c) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako agiriak, egiaztatzeko pertsona eskatzaileak bere betebeharren berri duela. Egiaztagiria ezin izango dira izan eskabideak aurkezteko epea iraungi eta hiru hilabete baino lehenagokoak eta, kasu horretan, eskatzailearen ordezkari legalak sinatutako erantzukizun aitortpena aurkeztu beharko da, ohartarazteko ez dagoela aitortpenak edo betebeharrak horiei dagozkien agiriak aurkeztera behartua.
- d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarrekin bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarrekin kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrekin ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatu behar da, eta ahalorde asketsia eman behar zaio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.
- e) Aitortpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako diru-laguntzen eskabideen deklarazioa, bertan zehaztuz eskatutako kopurua, entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. Eranskina).
- f) Elkarrekin ordezkari legalaren erantzukizun aitortpena, baieztatzeko jardueretan parte-hartu duten pertsona guztiek, baita pertsona boluntarioek ere, betetzen dituztela Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren -Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren legea hein batean aldatzen dituen- 13.5. artikuluan ezarritako baldintzak, baita Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legearen 8.4. artikuluan ezarritakoak ere.
- g) Egindako jarduera bakoitzaren memoria, justifikazioko kontuaren ereduari jarraiki egina eta elementu hauez osatua:
 - Jardueraren izena.
 - Nori dagoen zuzendua jarduera.
 - * Ikasleei.
 - * Gurasoei.
 - * Orokorrean, eskola-elkarteari.
 - Parte-hartzaile kopurua.
 - Jardueraren datak.
 - Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantzea. Egindako gastuekin batera, jarduera egiteagatik izandako diru-sarrerak zehaztu beharko dira, hala nola sarrerekin, matrikulekin edo prezioarekin jasotako dirua, produktuen salmenta, jarduerarako jasotako diru-laguntzak...
 - Jardueraren ordainketa egiaztatzen duten fakturak eta ordainagiriak.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat, jatorrizko izaera duten kopiak.

8.-Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena:

8.1.- Prozeduraren instrukzioa:

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, instrukzio-organoak aurkeztutako eskabideak ebaluatuko ditu deialdian adierazitako irizpideen arabera, eta horren emaitza ebazpen-proposamen batean zehaztuko da. Proposamena Hiritarrendako Zerbitzuetako Informazio Batzordeari helaraziko zaio, ebazteko eskumena duen organoak irizpena emateko.

8.2.- Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Erabakia ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da, diru-laguntzarako eskabidea Erregistro Orokorrean onartu den egunetik aitzina. Prozedura ebazteko gehienezko epea ebazpen zehatzik egokitu gabe igaroz gero, eskabidea baztertu dela ulertuko da.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

Emandako diru-laguntzak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu beharko dira, eta kasu bakoitzean adierazi beharko da diru-laguntzaren deialdia, egotzitako programa eta aurrekontu-kreditua, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren xedea edo helburua.

9.-Diru-laguntzen xede diren gastuak:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ezberrik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen epean egiten badira.

10.-Diruz lagundutako jardueraren bateragarritasuna:

Udaleko diru-laguntzak jasotzea BATERAGARRIA da beste edozein administrazio, entitate edo pertsonak xede bererako emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, ezin izango da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hori gertatuz gero, bidezkoa izango da jasotako gehiegizko dirua itzularaztea, baita dagokion berandutze-interesa eskatzea ere.

Pertsona edo entitate onuradunak organo emaileari adierazi beharko dio jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu edo jaso dituela. Jakinarazpen hori ahal bezain pronto komunikatu beharko da eta, betiere, jasotako funtsak aplikatzeko egindako justifikazioaren aurretik.

11.-ORDAINKETA

Diru-laguntzak emaitza ebatzi ostean ordainduko dira.

Onuradunei ezin izanen zaizkie diru-laguntzak ordaindu ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

12. Dirua itzularazteko arrazoiak

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, baita berandutze-interesak galdatzea ere—diru-laguntzak kobratu eta egun horretatik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte—, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, baita atal honetan aurreikusitako gainerako kasuren batek ukitzen badu ere.

13. Errekurtsoen araubidea

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtso hauek jartzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-ekintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean jartzen ahalko da, errekurritzen den ekintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den ekintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Zizur Nagusian, 2017ko maiatzean.

I. ERANSKINA
ESKABIDE-EREDUA

..... jaunak/andreak, helbidea
.....-n duenak, NAN zenbakia
....., Telefono-zenbakia,
eta Faxa Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau ordezkatzuz:
..... jaun/andrea,
helbidea, NIF zenbakia,
Telefono-zenbakia..... eta Faxa

Diru-laguntzak lortzeko deialdi honen berri izanik, Zizur Nagusiko ikastetxe publikoetan jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak egiteko Guraso-elkarteei zuzendutako deialdia, banakako ebaluazio-araubidean, NAOKo zenbakian, data honetan argitaratua

ESKATZEN DU: honako agiri hauek atxikita dituen eskabidea aintzat hartzea:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak eta, behar izanez gero, eskatzailearen ordezkari den pertsonarena ere.
- Erantzukizun aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredutzat hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak indarrean dagoen legeriak eta deialdi honek galdegiten dituzten baldintzak betetzen dituela, eta ez duela inolako debeku-ziok ukitzen onuradun izaera eskuratzeko.
- Egiaztagiri bat, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bere tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.
- Aitorpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako diru-laguntzen eskabideen deklarazioa, bertan zehaztuz eskatutako kopurua, entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (III. Eranskina).
- Egindako jarduera bakoitzaren memoria, justifikazioko kontuaren ereduari jarraiki egina eta deialdi honen 7.4. atalean adierazitako agiriak atxikita.

Horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau igorri eta sinatzen dut,

.....-n, 2017koaren(e)(a)n.

(Sinadura)

II. ERANSKINA ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
jakinarazpenetarako helbidea-n duenak,
NAN zenbakia, Telefono-zenbakia,
Faxa eta e-maila Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau
ordezkatuz: jaun/andrea,
helbidea.....-n duena, NIF zenbakia
..... Telefono-zenbakia eta Faxa
..... eta **diru-laguntzak lortzeko deialdi honen berri izanik, Guraso-elkarteei zuzendutakoa, banakako ebaluazio-araubidean, Zizur Nagusiko ikastetxe publikoetan jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.**

AITORTZEN DU:

- Onuradun izaera eskuratzeko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezartzen diren baldintza orokorrak betetzen dituela, baita deialdi honetan zehazki eskatutakoak ere.
- Ez duela onuradun izaera eskuratzeko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2. artikuluan ezartzen diren debeku-zio batek ere ukitzen.
- Tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ezagun duela.
- Konpromisoa hartzen duela eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa eskaeraren ebazpena oinarritzen duten xede eta jardueretan erabiltzeko.

Horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau igorri eta sinatzen dut,

Zizur Nagusian, 2017koaren(e)(a)n.

(Sinadura)

III. ERANSKINA
XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ERANTZUNKIZUNPEKO
ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, helbidea
.....-n duenak, NAN zenbakia
....., Telefono-zenbakia,
eta Faxe Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau ordezkatzuz:
..... jaun/andrea,
helbidea, NIF zenbakia
Telefono-zenbakia..... eta Faxa eta **diru-laguntzak**
lortzeko deialdi honen berri izanik, Guraso-elkarteei zuzendutakoa, banakako ebaluazio-araubidean,
Zizur Nagusiko ikastetxe publikoetan jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.

Eskatutako diru-laguntzaren arabera, AITORTZEN DU:

- Ez duela inolaz ere diru-laguntzarik eskatu edo jaso deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuegandik.
- Honako diru-laguntza hau eskatu diela deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuei:
- Honako diru-laguntza hau jaso duela deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuegandik:

Eskatutako diru-laguntzak: (Adierazi data, entitatea eta zenbatekoa)

Jasotako diru-laguntzak: (Adierazi data, entitatea eta zenbatekoa)

Zizur Mayor - Zizur Nagusian, 2017koaren(e)(a)n.

(Sinadura)